



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Bilera- zenbakia: 2025ICGO0019

Eguna: 2025-11-25

Ordua: 12:00 -12:15

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu

Bertaratu ez direnak

- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ- PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2025eko urriaren 28ko eta 29ko batzordeetako akten onarpena.
- 2.- Harrera-etxebizitzaren kalifikazioa.
- 3.- Merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntza.
- 4.- Sagardun Partzuergoaren ekarpena.
- 5.- 2024-2026 Dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa puntuala.
- 6.- Ergobia plazatxoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen kontratazio-espeditente berria.
- 7.- Usategieta baserriaren obra-baimena.
- 8.- Informazio, galdera eta eskariak.

Esan- eginak eta erabakiak

1.- 2025eko urriaren 28ko eta 29ko batzordeetako akten onarpena.

Aho batez onartu dira.

2.- Harrera-etxebizitzaren kalifikazioa.

Alkateak azaldu Anuskako etxe baten sutearen ostean, harrera-etxebizitzaren udal-ordenantza aldatzearen beharra ikusi zela, lehen ordenantzak kalifikatzen baitzituen harrera-etxeak eta hori ez zelako eraginkorra. Jarraian, Ongizate batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- "HARRERA ETXEBIZITZA" gisa kalifikatzea ondoko etxebizitzak:

- Jabetzan dituen bi hauek: URUMEA 6-2.F eta AIOTZATEGI 4-1.F
- Alokairuan dituen lau hauek: FORU PLAZA 7ko, behea eskuina, behea ezkerra, 1. eta 2.

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

3.- Merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntza.

Alkateak dirulaguntza eskaeraren eta horren inguruan toki garapeneko teknikariak egindako txostenaren nondik norakoak azaldu ditu. Halaber dirulaguntza honen 3 lerrotan aurten onartu diren laguntzak laburbildu ditu. Ondoren, akordio-proposamen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena- ANA ISABEL GUERRERO CABRERA (75121714B)ri merkataritza ekintzailtza sustatu eta jarduera ekonomikoak sendotu eta mantentzeko dirulaguntzaren 2. lerroaren barruan, 4.000 euroko dirulaguntza ematea, 1 1000.471.01.241.00 2025 kontu-sailaren kargura.

Bozkatzera ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

4.- Sagardun Partzuergoaren ekarpena.

Alkateak ekarpenaren nondik norakoak azaldu ondoren, akordio proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena- Sagardun Partzuergoari 104.000,00 euroko ekarpena egitea 1 1000.433.01.432.20 2025 (2797) kontu-sailaren kargu.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

5.- 2024-2026 Dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa puntuala.

Alkateak azaldu du Antolaketa batzordera plan estrategikoaren aldaketa puntuala eraman zela dirulaguntza izendun berri bat gehitzeko (Udalbiltza Partzuergoarena) eta batzordeak erabaki zuela tokiko gobernu-batzarrari eskatzea plan estrategikoaren aldaketa onartzea. Baina gero ikusi dela dirulaguntza izendun baten hartzailea gaizki jasota dagoela plan estrategikoan, "Euskal herrigintza laborategia" agertzen baita, baina ikerketa egiten duena hori izan arren, onuraduna OIaso Dorrea Fundazioa dela. Hori horrela, proposatu du 2024-2026 Dirulaguntzen plan estrategikoan bi aldaketa horiek egitea eta akordio hau hartzea:

Lehena- Dirulaguntzen 2024-2026 Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea (ikusi eranskina).

Bigarrena- Espedientea web orrian argitaratzea.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta proposamena aho batez onartu da.

6.- Ergobia plazatzoko berrurbanizazioa eta estalki berriko lanen kontratazio-espeditente berria.

Alkateak Antolaketa batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena- Obrak kontratatzeko espeditente berrian, hutsik geratu den kontratazio-espeditenterako onartutako obra-proiektu bera erabiltzea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena. - Obra-kontratu honetarako moldatu diren baldintza plegu administratiboak onartzea.

Hirugarrena. - Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Jarraian bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7.- Usategieta baserriaren obra-baimena.

Alkateak azaldu du baserria berritzeko obra-baimena eman zela, baina bere horretan ez zutenez bete, baimen hori iraungitu egin dela eta berri bat izapidetu. Gaineratu du, lehen baimena ez betetzeak arau-haustea dakarrela, eta horregatik zehapen espediente bat izapidetu zaie, eta horren ebazpena hurrengo tokikora ekarriko dela.

Jarraian, Antolaketa batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena. - Usategieta baserria berreraikitze proiektua **jendaurrean jartzea hogeit egunéz,** alegazioak eta/edo iradokizunak aurkezteko. Iragarkia GAO n argitaratuko da, eta bertan adieraziko da espedientea interesdunen eskura egongo dela Udaleko Hirigintza Sailean.

Bigarrena. - Usategieta baserria berreraikitze lizentzia ematea, arkitektoak 2025eko azaroaren 13ko txostenean eskatutako baldintzak betetzearen **baldintzapean, jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren** eta beti ere alegaziorik edota iradokizunik aurkeztu ez bada. Alegazioak eta/edo iradokizunak aurkezten badituzte, horiek informatu egingo dira, beste ebazpen-proposamen bat eginez.

Hirugarrena. - Erabakia José Casla Uriarteri jakinaraztea.

Bozkatzeari ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

8.- Informazio, galdera eta eskariak.

Ez da egon.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2025eko azaroaren 25ean.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkarla



